



## OINARRIZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak energia sortzea eta saltzea du helburu, horretako Sasietak gorotzak jasoko ditu eta guk lehengai hori balioa duen energia bihurtuko dugu. Horretako gorotz horiek energia bihurtzen duten hainbat makina beharko ditugu. Merkatuan azterketa bat egin ondoren ondorengo makina aukeratzea erabaki dugu: CG260-16. Makinak hainbat osagarri derrigorrezkoak direnak ditu eta gainera makinaria hozteko funtzioa gehitu geniokeen. Makinak elektrogeneradore baten bitartez funtzionatzen du: 4000 eKw potentziakoa da. Gure makina biogasez hornitu daiteke, orduan sortzen dugun energia berarekin hornitu dezakegu. Makinak beste hainbat ezaugarri tekniko ditu hurrengo dokumentuan ikusi daitekeen bezala:



Makina hauek langile desberdinek kudeatuko dituzte, eta hauek pabilioi handi batean lan egingo dute. Hurrengo pabilioia izango litzateke:



- Pabiloi handi bat: (Lantegi-gunea, bulegoak eta bideokonferentzia guneak). Pabiloi hau Zaldibian dago kokatua eta gaur egun abandonatuta dago; erreformatu egin beharko litzateke eta gure enpresarentzako egokitu. Sasietako zabortegitik gertu dagoenez; lortutako hondakinak (gorotzak) garraiatzekom energia gutxi erabili beharko litzateke eta ingurumenean eragina urria izango litzateke. Kostuak gainera minimoak izango lirateke; SASIETAK ez luke inbertsio handirik egin behar.